

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

468/2020 Foru Agindua, abenduaren 9koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzailea)

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorren 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Uztailaren 3ko 246/2020 Foru Aginduaren bidez, praktiketako funtzionarioak izendatu ziren lanpostu honetarako: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzailea). Halaber, hautatutako izangaia behin-behinean atxiki zitzairen lanpostu hauei:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
María Ruth Ontoria Esteban	Zerga ikuskatzailea	1131.001
Iratxe Ruiz de Gordo Ruiz de Alegria	Zerga ikuskatzailea	1131.008
Ana María Pérez Larrauri	Zerga ikuskatzailea	1131.003
Asier Ruiz Argote	Zerga ikuskatzailea	1131.009

Oinarri orokorretako 13. apartatuaren arabera, balioespen batzordeak hautagai guztien praktika aldiari "Gai" eman dio azken kalifikaziotzat; hortaz, aldi hori gainditu dutenez, eta oinarri horiek 14. apartatuarekin xedaturikoarekin bat etorritik, bidezko da karrerako funtzionario izendatzea eta horri buruzko iragarkia ALHAOn argitaratzea.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Praktikaldia gainditu duten funtzionarioak karrerako funtzionario izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorren 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan, ondoren adieraziko diren lanpostu hauetara atxikita sartzeko: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzailea). Hona hemen lanpostuak:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
María Ruth Ontoria Esteban	Zerga ikuskatzailea	1131.001
Iratxe Ruiz de Gordo Ruiz de Alegria	Zerga ikuskatzailea	1131.008
Ana María Pérez Larrauri	Zerga ikuskatzailea	1131.003
Asier Ruiz Argote	Zerga ikuskatzailea	1131.009

Bigarrena. Karrerako funtzionario izendaturiko izangaiek hilabeteko epea dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, beren lanpostuaz jabetzeko. Epe hori hama-bost egun naturalez luza daiteke, lanpostura aurkeztu denak hala eskatu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak lanpostu esleituei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. eta 46.1 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 9a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren
eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR